



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO AZAROAREN 6KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2015.11.06.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Azkeneko aktaren onespena.

2.-Udalbiltzaren proposamena.

3.-Bortzirietako Zabor Mankomunitatea: tasei buruzko proposamena.

4.-Mendiko lanak.

5.-Emakume eta neskatilen kontrako indarkeria guztien aurkako manifestua.

6.-Emakumeen aurkako biolentzia desagerrarazteko nazioarteko egunaren adierazpena.

7.-ADEMNA: diru laguntza eskaera.

8.-Arantzako Guraso Elkarte: diru laguntza eskaera.

9.-Euskadi Txirindularitza Iraskundea: diru laguntza eskaera.

10.-Bardeako tiro eremuaren eta bertan burutzen ari diren maniobra militarren aurkako mozioa.

11.-Alkatearen ebazpenak.

12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2015eko urriaren 23an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 4. puntuan gehitu kartela bat jarriko dela hilketa gertatzen denean.

2.-UDALBILTZAREN PROPOSAMENA.

Ikusirik Udalbiltzak bidalitako hitzarmena, Euskal Herri mailako kohesio eta garapen sozioekonomikoa sustatzeko egitasmoa burutzeko.

Kontuan hartuz Arantzako Udalak, 2013ko urriaren 23an egindako bilera hitzarmena onartu zuela eta Alkateari ahalmena ematea sinatzeko.

Ikusirik Arantzako Udalak eta Udalbiltzako ordezkariekin egindako bilera bere helburua eta egitasmoa aztertzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako hitzarmena berrestea.
- 2) Proiektua finantzatzeko 2.000,00 euroko ekarpena egitea, 2015eko aurrekontuan agertzen den partidaren kargura.
- 3) 2016. urterako proiektua finantzatzeko 1.000,00 euroko ekarpena egitea, 2016ko aurrekontuan kargura.

3.-BORTZIRIETAKO ZABOR MANKOMUNITATEA: TASEI BURUZKO PROPOSAMENA.

Gaia mahai gainean uzten da Makomunitateko ordezkariekin bilera egin arte.

4.-MENDIKO LANAK.

Ikusirik Basarte enpresak prestatutako proiektua, Ametxoko alderdiko mendian birlandaketa egiteko.

Alkateak aipatu du mendiko lanen diru laguntza deialdia oraindik ez dela argitaratu baino laster egingen dela eta lanak esleitu behar direla garaiz egiteko landaketa. Arriskua dago lana eginga egon eta diru laguntza ez izatea.

Ikusirik lana horien beharra eta premia esleitzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Basarte enpresak egindako Ametxoko alderdiko mendian birlandaketa egiteko proiektua onartzea.
- 2) Lanak esleitzeko oinarrizko baldintzak onartzea.
- 3) Lanak esleitzeko gonbidapenak bidaltzea Carlos Txoperena Matxikote, Etxarte Martinez anaiak, Pako Altzuri S.L. eta Berdabio Basogintza enpresei azaroaren 25eko eguerdiko 14:00ak arte proposamenak aurkezteko epea emanez.

5.-EMAKUME ETA NESKATILEN KONTRAKO INDARKERIA GUZTIEN AURKAKO MANIFESTUA.

Emakume eta neskatilen kontrako indarkeria guztien aurka izeneko manifestua ikusirik,

ADIERAZTEN DA:

-Indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-auzia dela.

-Istanbulko Hitzarmena garatu eta aplikatu behar dela, bai eta CEDAW konbentzioaren gomendioak ere; halaber, 14/2015 Foru Legearen aplikazioa ere sendotu behar da, emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria mota guztiak islatuta egon daitezen.

-Gizarte osoak, eta bereziki bere erakundeak eta instituzioek, indarkeria matxistak prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromisoa hartu behar dutela, baita indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko eta ordaina emateko ere, edozien dela ere haien egoera administratiboa, eta arreta-prozesuetan biktimizazio multiplean erori gabe. Izan ere, honako



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

hau da funtsezko helburua: emakumeei laguntzea errekuperatzeko, ahalduntzeko eta erabateko autonomia bilatzeko prozesuan.

-Beharrezkoa dela komunikabideen inplikazioa tratamendu egokia eskaintzeko emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria guztien aurrean, haien tratamenduan sentzazionalismo morbosoa saihestuta, eta hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabilita.

-Gure elkartasuna jazarritako/erahildako emakume eta neskatilekiko, muturreneko indarkeria sexistaren biktimak izan direlako, eta gure babes guztia haiei eta haien familiarrei.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herritarrak eta oso modu berezian neska eta mutil gazteak GONBIDATZEN DITUGU konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzera emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, bai eta azaroaren 25ean Emakumearen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela-eta eginen diren ekitaldietan modu aktiboan parte hartzera ere.

6.-EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA.

2015eko azaroak 25, emakumeen aurkako biolentzia oro baztertzen dugula ez ezik, biolentziak eragiten dituen eragile oro baztertzen dugula ere esateko eguna da, aski dela esaten jarraitzeko eguna da. Eta erakunde publikoak, borroka honetan lehentasunezko eragile izango gara berretsiz konpromiso zehatzak hartzeko eguna da. Ez dugu bakea eta normalizazioa lortuko gure herrian, emakume izateagatik biolentzia jasateko aukera bakar bat mantentzen den bitartean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek, Emakumeen Mundu Martxak onartua duen biolentzia matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.

2) Udal honek, talde feminista eta emakume taldeekin elkarlanean, erkidegoari lotutako biolentzia matxistei aurre egiteko emerjentziazko plan iraunkorra abian jarriko du, horretarako behar diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak aktibatuko dituelarik.

3) Lurraldean izan daitekeen emakumeen aurkako erasoak identifikatzeko, salatzeke, desagerrarazteko eta sortu aurretik aurreikusteko Biolentzia Matxistaren aurkako Behatokia abian jarriko du, emakume eta talde feministekin elkarlanean.

4) Udal honek, izanak izena duenez, eta terminoak argitze aldera, etorkizunean "biolentzia matxista" terminoa erabiltzeari eutsiko dio, dagoeneko hedatua eta zabaldua dagoen kontzeptua baita adituen artean.

5) Udal honek, berdintasun unitatea baliabide tekniko zein ekonomikoz hornitu ez ezik, egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du, 2016 urteko aurrekontuak zehazten ari diren une honetan.

6) Udal honek Nafarroako Gobernua enplazatzen du, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitu, berdintasuna era transbertsanean Gobernuko politiketan txertatzeko bitartekoak martxan jarri eta Nafarroako Berdintasunerako Institutoarekin batera, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak ezartzen dituen bitarteko eta neurriak bere osotasunean garatu, egikaritu eta berma ditzala.

7) Udal honek, enplazamendu zuzena egiten die hezkuntza eragileei lerro kurrikularretan genero berdintasuna landu dezaten.

8) Udal honetatik borroka feministarekin daukagun konpromisoa berresten dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko eta burujabea eraikitzeke bide eta tresna gisa.

9) Azaroaren 25erako mugimendu feministak deitu dituen mobilizazioekin bat egiten dugu eta bertan parte hartzeko deia egiten diogu jendarte osoari.

7.-ADEMNA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Kontuan hartuz ez dagoela partidarik aurtengo aurrekontuan horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiengatik.
- 2) Akordio hau ADEMNA Elkarteari jakinaraztea.

8.-ARANTZAKO GURASO ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Arantzako Guraso Elkarteak aurkeztutako idatzia, 2016ko aurrekontuan partida bat izateko eskatuz Eguberrietako eta bestetako haurren ekitaldietako gastuen erdia ordaintzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako eskaera onartzea eta gastuen erdia Udalan gain hartzea.
- 2) Akordio hau Arantzako Guraso Elkarteari jakinaraztea.

9.-EUSKADI TXIRRINDULARITZA IRASKUNDEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Euskadi Txirrindularitza Iraskundeak aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Kontuan hartuz ez dagoela partidarik aurtengo aurrekontuan horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiengatik.
- 2) Akordio hau Euskadi Txirrindularitza Iraskundeari jakinaraztea.

10.-BARDEAKO TIRO EREMUAREN ETA BERTAN BURUTZEN ARI DIREN MANIOBRA MILITARREN AURKAKO MOZIOA.

Udazkenean zehar, Espainiako Estatuan hainbat ariketa militar burutuko dituzte, NATOk Europa osoan zehar hedatuko duen operazio militarren baitan (Trident Juncture). Erakunde honek gerra hotzaz geroztik egingo duen ariketa belikorik handienetakoaren aurrean gaude, eta Espainiako Estatuak izango da eszenatoki nagusietako bat.

Prentsaren bidez zabaldu den informazio urriaren arabera, operazio horretan 30.000 militarrek parte hartuko dute eta ehundaka tanke, ibilgailu militar, hegazkin, helikoptero, gerra buke eta abar luzeak. Operazio horrek eskura izango ditu baita ere estatuan zehar banatuta dauden instalazio militar guztiak. Ariketa horien bitartez superpotentziek euren indar eta botere posizioa baieztatzea dute helburu, nahiz eta ondorioak beti diren suntsiketa, beldurra, deserrotzea eta sufrimendua.

Gogoratu beharra dago Nafarroan gehiengoak ezezkoa esan ziola NATOren sartzeko Espainiako Estatuan eginiko erreferendumari. Orduan azaleratu zen sentimendu antimilitar eta antibelzistak jarraipena izan du Bardeako tiro eremuaren gaitzespen etengabearen -NATOren barruan diseinatutako estrategia militar eta gerra operazioei lotutako dagoelako modu zuzenean-.

Instalazio horren inguruan istripu ugari gertatu dira bera sorreraz geroztik. Ez dezagun ahaztu poligonoa legeak babesturako eremuan dagoela, Parke Naturala eta Munduko Biosfera



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

erreserba figuraren baitan. Hala ere, 70 istripu baino gehiago zenbatu dira orain arte, eremu zabal bati eragiten diotenak: Arguedas, Funes, Borja, Deustia, El Busto, Sabada, Murillo el Fruto, Valtierra, Tarazona, Argoncillo, Cascante, Azkoién, Kaseda, Cortes, ...

Bitartean nabarmentzekoa da Bardeako tiro eremuan ematen diren operazio militar gehienen inguruan Defentsa Ministerioak duen jarrera, hau da, isiltasun ofiziala eta desinformazioa, baita jardun militar horretatik eratorritako istripuen inguruan ere.

Guzti horrengatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Defentsa Ministerioari eskatzea “Trident Juncture” operazioaren burutzea geldiarazi dezala berehalakoan, eta tiro eremura eta bonbardeo eta tiro praktiketara bideratutako baliabide ekonomikoak gastu sozialetarako erabil ditzatela.

2.- Defentsa Ministerioari eta Bardeako Komunitateari tiro eremuaren desagitea exigitzea eta eremu horretatik atera ditzatela militar guztiak, biosfera erreserba den heinean erabilera zibilera mugatuz.

3.- Honako akordioa Nafarroako Gobernuari, Defentsa Ministerioari, Bardeako Komunitateari eta hedabideei helaraztea.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 103. ebazpenetik 104. ebazpena arte).

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



